

XIII RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

AZKEN ERABAKIA

XIII Rikardo Arregi Kazetaritza saria epaitzeko Andoaingo Udalak izendaturiko Epaimahaikideek -Jose Antonio Barandiaran, mahaiburua, Allande Boutin, Laura Mintegi, Koldo Ordozgoiti, Ana Urkiza, Iñaki Zabaleta, eta idazkari gisa eta, beraz, hizpidez baina hautespiderik gabe, Nekane Goikoetxeak osatutakoak- ondorengo *azken erabakia* hartu eta ezagutzera ematea adostu dute.

1.- Datorren urtean hirurogei urte izango dira Rikardo Arregi andoaindarra jaio zela. Zoritxarrez hogeita sei urterekin utzi gintuen, 1969an hain zuzen ere. Ordurako, halere, lan mardula egina zuen eta kulturgintzako hainbat arlotan berritzaile izateak ekarri du bere izena Euskal Herrian aintzat hartzea eta oraindik ere daukan erreferentzialtasuna gordetzea.

Sarritan gertatzen da, ordea, miresmen argitan gordetzea oroimena baina gaurkotasunik gabeko edukirik gabea bihurtzea. Esan nahi dena da, hautsez betetako zerbait bihur dakigukeela izena, atzean zuen pertsona eta garaia ahaztuta.

Horregatik guztiagatik, Andoaingo Udalak Rikardo Arregik jorratu zuen alderdietako bat aukeratu zuen haren itzala iraunarazteko eta bere ekarriei jarraipena emateko. Aurtengoan XIII. edizioa du Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak. Andoaindarraren itzalean, euskaraz egindako kazetaritza bultzatu nahi da honen bitartez; hark landatutakoa gaurko kazetarien ekarriekin uztartuz.

Sarira aurkeztu diren 23 lanen egileei eskerrak emateaz batera, Epaimahaiak bereziki aipatu nahi du Sari Nagusirako aurkeztu diren hainbat lanen kalitatea. Oso lan ezberdinen artetik zaila gertatu zaio epaimahaiari erabakia hartzea; horrela izanda ere, aho batez hartu dira erabaki guztiak.

2.- Hurrengo hau da epaimahai honen erabakia:

* 2.1.- “*Kazetari berria*” ataleko saria, 400.000,- pezetaz, diplomaz eta Xabier Laka eskultorearen oroit-ikurraz hornitutakoa. Kazetaritza munduan lehen urratsak egin dituzten gazteentzat pentsatua, gehienez 25 urte dituztenek dute aurkezteko aukera.

Bidaiarekin lotutako kazetaritza da saritutakoa. Kazetaria bidaia batean murgildurik dagoela idatzitako kronikak ditugu sarigai. Orain aipatuko ditudanak dira, epaimahaiaren ustez, lan honen merezimenduak:

- Genero nahasketaren bitartez, kazetaritza literaturara hurbilduz, bidaia-kazetaritza landu da lanean. Aspaldian prentsan erabili ez den moduko lan maratonianoa dugu saritua, eginean egindako produktua, esplorazio bidaia.
- Idaztearen abentura beste abentura baten barruan kokatuz, egileak ondo orekatzen du subjektibotasuna, bidaideak egiten duen irakurketa, eta objektibotasuna, aurkitu denaren deskribapena. Literaturaren edertasun poetikoa eta kazetaritzaren egitate edo factum-a lotzen ditu.
- Arina da estiloa, gustagarria, informazioaren aukeraketa egokia azpimarratu beharko litzateke. Kontakizuna oso ongi bideratzen du,

tentsioa mantentzen badaki eta, beraz, jarraitzeko gogoia pizten dio irakurleari, harrapatu egiten du.

- Mundu zabala euskaltzale gazte baten ikuspegitik ikusia, joandako lekuan bertako euskaldunak bilatzen eta beren bizimodua kontatzen saiatu da. Era berean, aurreko kroniketan jasotako ideiekin lotura egiten du, eta horren bitartez irakurleari keinu egiten dio.

- Kontinenteen sakontasunera egindako bidaiak, Pangea espedizioak, bi zentzutako sakontasuna bilatzen du, fisikoa batetik, kulturala bestetik. Proiektu globala da, ez da egitasmo zientifikoa bakarrik, humanoa ere bada. Eta hori guztia, kazetaritza-produktu bezala islatzen da.

+ *Sariduna: **Ander Izagirre Olaizola jauna.***

+ *Saritutako lana: Zabalik astekarian Pangea espedizioaren jarraipena egiteko 2000ko irailetik 2001eko maiatzera bitartean argitaratutako kronikak.*

Anderren senitarteko batek jasoko du saria. Ander ez dugu batzar areto honetan. Gaur bertan iritsi baita Madrileko aireportura Djibutiko sakontasunak ezagutu ostean. Halere, teknikak laguntzen badigu berarekin hitz egiteko aukera izango dugu.

* **2.2.- XIII Rikardo Arregi Kazetaritza sariko “sari nagusia”,** diplomaz, 1.000.000,- pezetaz eta Xabier Laka eskultorearen oroit-ikurrak hornitutakoa. Honen bitartez saritzen direnak kalitatea, berrikuntza eta eredugarritasuna dira.

Saritutako lana zein den argitu aurretik, aipamen berezi bat egin nahiko luke epaimahaiak. Hain zuzen ere, Josu Juaristik Gara egunkarian argitaratutako lanena. Hauek Europar Batasuna dute mintzagai. Gaiaren zailtasuna kontuan hartuta, lortu duen argitasun, zehaztasun eta, era berean, sakontasun maila azpimarratu nahi da aipamen berezi honen bitartez.

Gatozen baina XIII. edizio honetako “Sari nagusia” norentzat den argitzeko. Hauek dira epaimahaiaren ustez azpimarratzeko alderdiak:

- Elkarrizketak dira saritutako lanak: egitura aldetik orijinalak, elkar osatzen duten atalez osatuak eta ordena harrigarrian jarriak. Lehendabizi elkarrizketatua gordinik azaltzen da bere hitzen bitartez, eta bukaeran egiten da haren aurkezpena, bere bizitzako une gogoangarrien bitartez, nola autoargazki, hurbileko norbaiten iritzi eta kazetariaren deskribapena erantsiz.

- Elkarrizketatua den pertsonaia eta pertsona uztartzen dira. Elkarrizketetan denontzat ezaguna den pertsonaiarenganako eta ezezaguna den pertsonarenganako hurbilketa egiten da. Kazetariak lekukotza ematen digu.

- Ideia zein hitzen joskera ederra da, balio literario handiko lana da.

- Kontalari biren elkarlana aurkezten zaigu irakurleoi, biak ere sakontasun handiz hitz egiten dutenak. Ahozkotatasuna nabarmenduta geratzen da idatzizko produktuan. Halere, elkarrizketatuen hitzei kazetariaren estiloa eranstean die egileak, hitz justuen bitartez produktu osoa eskainiz.

+ *Sariduna*: Arantxa Urretabizkaia Bejarano.

+ *Saritutako lana*: Zabalik astekarian 2000ko maiatzetik 2001eko maiatzera bitartean argitaratutako elkarrizketak.

Arantxa Urretabizkaiak jasoko du saria.

3.- Aurten Ohorezko Aipamenaren aukeraz baliatzea erabaki du epaimahaiak. Allande Boutin jaunak irakurriko dizkigu Aipamena egiteko arrazoiak eta omendutakoaren ibilbidea:

Zazpi senideko famili batean, 1934ko abenduaren 17an sortu zen gaur Ohorezko Aipamena jasoko duen kazetaria. Heleta du sorterrria **Xipri Arbelbidek**. Baxe-nafar hori apaiza baino kazetari gisa ezagunagoa da euskaldunen unibertsoan. Aspalditik piztu zen bere baitan kazetaritza-zaletasuna. Apaizgai baizik ez zela, Iparraldeko Herria kazetan idazten hasi zen. Gero Landesetako Tarnoseko seminarioan grekera eta ingeleseko irakaslea izan zen hiru urtez. Boli kostan hamabi urtez hango seminarioan irakasle eta Tiassaleko herrian apaiz. Parisen urtebetez Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales delakoan ikasle, berriro Euskal Herrira itzuli arte. Ez dezagun ahantzi hala ere, Aljeriako gerlan izana dugula.

Euskal Herrira etorri berria zela berriz piztu zitzaion kazetaritzarako pasioa; euskararen egoera ikusiz, hedabide garaikideen beharra sentituz. Orduan hedabideetan buru-belarri sartu zen. 1981eko abenduaren 25ean Lapurdiko Gure Irratia hasi zen emititzen, erabat euskaraz ziharduen lehen irratia. Zenbait hilabete lehenago Xipri Arbelbidek hainbat euskaltzaleri irratia baten sortzeko gomita egin zien. Proiektua bideratzeaz gain, berriak biltzeko eta emateko kazetari taldea osatu zuen Mattin Lartzabal eta Lucien Etxezaharretarekin.

“Zirrita zilotik” saioan, lehengo ohidurak, munduko gerlak eta iparraldea, Aljeriako gerla, eta abar luze bat lehen aldikotz irrati batean eta euskaraz aipatzen ziren. “Xahaldikako sorgina” programak, aldiz, modu umoretsuz Xiprik sorgin baten boza harturik, hamaika kontseilu praktiko eta bitxi ematen zituen. Hala nola, etxean ur untzi batean loreak nola atxiki bi egunen buruan ximel ez zitezen...ala kristalak garbitzeko mila molde! “kalaka eta kanta” saioak, berriz, ordubeteko programak sei kantuk ilustraturik hiru elkarrizketei aukera ematen zien. Xipri Arbelbidek beti izan duen Euskal Herriko aniztasuna adierazteko kezkaren ispilua dugu emankizun hau. RPR-ko militante, sozialista, demokristau, HB, EAJ, EA nolaz CGT, CFDT, ELB ala FDSEA sindikatukideei mikrofonoa luzatzen zien Xiprik, jendeari hitza utziz, libroki.

Gure Irratia sortu zen une berean, Xipri Arbelbidek beste proiektu bati ekin zion ere. Herriz herri deitu aldizkariaren sortzaileetarikoa baita. 1981ean sortu zen astekariak hamar urtez iraun behar zuen. Euskarazko artikulu gehienak idazten zituen berak. Bere luma fina eta zorrotzez ainitz gai jorratu zituen, orduan maiz tabu ziren eztabaidak astinduz. Hala nola, borroka armatuarena...Baina bere burua guztiz zutik eta libre den gizonak, Xipri Arbelbidek, bere bidetik beti aurrera jo du, kritika eta traba guztien gainetik.

Orain dela hiru urte, berriz ere parrokia batean izendatua izan ondotik, Gure irratia eta eguneroko kazetaritza utzi behar izan zituen. Halere zutaberik nolaz iritzi artikuluetarik ez da desageri gure apaiz-langile eta langile-apaiza. Habe, Egunkaria, Deia, La semaine du Pays basque eta Garan oraindik ere

(eta agian luzaz) irakur dezakegu antikonformista samarra den idazle, itzultzaile eta kazetari euskaltzale porrokatua.

XIII. edizioko Ohorezko Aipamena, beraz, Xipri Arbelbide jaunak jasoko du Andoaingo Alkatearen eskutik. Urrezko paparrikurra eta diploma emango dizkio.

4.- Bukatu aurretik, bada epaimahaiak egin nahi duen omenalditxo bat. Izan ere, sari honetatik kanpo geratu ohi den alderdia aipatu nahi da. Irudia, bere alderdi guztietan, zaila gertatzen da hitzarekin uztartzen Sari honetan eta epaimahaia jabetzen da horren gabeziaz. Horregatik, irudiaren alderdiari kazetaritza sari honetan lekua eskaini nahirik, “Euskal Herria lau haizeetara” saioa egiten ari zirela zendutako kazetariak omendu nahi ditugu. Haientzat izan daitezela azken txaloak.

Honaino, bada, *XIII. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariari* dagokion *azken erabakia*. Epaimahaikideok ontzat ematen eta sinatzen dugu gaur, Andoainen, bi mila eta bateko ekainaren hogeita hamarrean.

José Antonio Barandiaran

Allande Boutin

Laura Mintegi

Koldo Ordozgoiti

Ana Urkiza

Iñaki Zabaleta

Nekane Goikoetxea